

Eneko Dorronsoro:

"Nola komunikatzen dira Dorronsoro eta Hicks eszenatoki gainean elkar ulertzeko? Abesti asko sortu dituzue?"

Instrumentuak eskuetan izanda ez dago elkar ulertzeko arazorik eta bi ardok ere asko laguntzen dute. Denbora dextente daramagu elkarrekin, ezagutzen gara, batak hitz bat esan eta besteak esaldi guztia egiten du. Abestiei dagokienez, ez dira bion artean sortutakok. Nik nire kabuz sortutako abesti batzuk eta Lucasek bere aldetik sortutako beste batzuk, mol-datuta banjoa eta trikitixarentzako.

Euskadi Irratia, Hiri Gorrian saioa 2015-03-13

Arkaitz Miner:

"Abenduan ateratako Esan diskaren inguruan ari garela..."

Autoekoizpena da; pixkanaka lantzen joan naiz eta materialtoko bat bildu dudanean erabaki dut diska ateratzea. Nire musika ibilbidean zehar beti trikitilariengandik gertu ibili izan naiz: Alaitz eta Maider, Imuntzo eta Beloki, Mikel Markez... Poliki-poliki bidea egiten zoaz eta jendea ezagutzen.

Ipar Euskal Herriko irratien sarea, Antxeta irratia.
Kantuz-kantu saioa 2015-02-14

Kepa Junkera:

Nire amak indar handiarekin eta gogo biziarekin dantzatzen zuen eta bikote aparta egiten zuen Txiribil Handiarekin. Nire aititeak erritmoa jartzeko erabiltzen zuen panderoa oraindik gordetzen dut altxor modura.

Kultura guztiak zerbitzatu ahal izateko eta nire musika hobetzen duten konexioak bilatzea gustatzen zait, nire herrialdearen nortasuna galdu barik. Izugarri gustuko dut instrumentuak fusionatzea eta ezarritakoari buelta ematea.

El fuelle viajero/hauspo bidaiaria

ESNE BELTZAK "GORAGO TOUR" BIRA HASI DU

Ondarroan hasi zuen Esne Beltzak "GoraGo Tour" kontzertu-bira, apirilean. Emanaldi horren ostean, Hazparneko gaztetxean, Viñarock jaialdian eta Hernanin (Oialumen) ere izan dira. Euskal Herrian lau emanaldi eskaini ondoren, maiatzean Japoniara joan dira Esne Beltza taldekoak "GoraGo Japan Tour" bira eginez.

HERRI BIHURTU ZAIDAN DESERRIAN

«Herri bihurtu zaidan deserrian» olerki eta kantu emanaldi bat da, errezeitatutako poema eta kantu akustikoen bilduma bat. Erbesteratuaren min intimoenak, hausturak, zalantzak, hutsuneak eta pozak islatzen dituen saiakera da. Jon Garmendia "Txuria" da poemaren idazlea eta bere egiazko historiaren kontakizun gisa, 10 urtetan idatzitako poemek osatzen dute proiektua. Xabi Solanok gidatutako talde honen partaideak hauek dira: Jon Garmendia idazlea, Xabi Solano eta Keu Agirretxea musikariak, Orzi Oihartzabal biolinjolea, Xabi Azkarate perkusiojolea eta Eider Eibar ilustratzailea. Emankizunaren estreinaldia Hendaian izan zen ekainaren 6an.

XABI ARAKAMA

Madrileko Boikot talde ezagunak "Viñarock" jaialdian beraiekin jotzeko deitu zion Arakamari eta handik aurrera taldekide bihurtu da. Talde honekin, jaialdi handietan eta atzerriko kontzertu berezietan jotzeko aukera izango du hemendik aurrera.

Bilbon bizi den New York-eko Joshua Edelman jazz pianojole handiaren "Bilbao Manhattan Jazz zubia" proiektuan ere musikari dabil Arakama. Euskal eta kubatar abesti batzuk jazz-arekin uztartuz urtebete darama Xabik Joshuaren taldean trikitixa jotzen.



2015eko ekaina · 57

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEAREN BOLETINA

EHTE Allemendi 1 · 20800 ZARAUTZ · Tel.: 943 83 28 28 · trikitixa@trikitixa.net

Euskal Herriko
Trikitixa Elkarte

L.G.: SS-418-01

www.trikitixa.net · www.trikimailua.com

I. MAKETA LEHIAKETA

Aurten, berrikuntza modura, Bizkaiko Trikitixa Elkarteak I. Maketa Lehiaketa antolatu nahi du. Lehiaketa honen helburu nagusia trikitixa eta pandero talde berri zein beteranoeiultzada ematea da. Parte hartzaileek ekainaren 30a baino lehen bidali beharko dituzte euren piezak Bizkaiko Trikitixa Elkarteko emailera (bizkaia@trikitixa.net). Irabazlea nor den irailaren 7an emango da ezagutzera. Hauek dira oinarriak:

- 1-Edozein adinetako talde edo bakarlariak aurkeztu ahal izango dira.
- 2-Taldea aurkezten bada, gutxienez taldekide batek bizkaitarra izan beharko du. Bakarlariek berriz, derri-gorrez bizkaitarrak izan behar dute.
- 3- Beharrezkoa da pieza guztietan trikitixa edo/eta panderoa jotzea eta diskorik argitaratu ez duten talde edo bakarlariak bakarrik aurkeztu ahal izango dira.
- 4-Piezek letrarik izanez gero, euskaraz idatziak izan beharko dute.
- 5-Originaltasuna, musika tresna ezberdinen menperatzea (teknika), afinazioa eta kalitatea baloratuko dira.
- 6-Sari bakarra egongo da: lurretako Txirula musika dendan gastatzeko 500,00 euroko bonoa eta

azaroan Getxon ospatuko den Nazioarteko Trikitixa Jaialdian jotzeko aukera.

7-Aurkeztutako piezak webgunean edo sare sozialetan hedatzeko baimena izango du Bizkaiko Trikitixa Elkarteak. Informazio gehiago Bizkaiko Trikitixa Elkarteko atarian edota 665 716 390 telefonon.



TRIKITIXA UDALEKUA ETA TOPAKETA ELOSUN

Elosuko (Bergara) aterpetxean Erdizka Trikitizale Elkarteak Udalekua antolatu du 2000 eta 2005 urteen artean jaiotako gazteentzat ekainaren 24tik 27ra. Txangoak, gonbidatuak, euskal kantak, erromeria e.a., denetarik izango da bertan.

Bestalde, aterpetxe berean, Euskal Herriko Trikitixa Elkartearekin elkarlanean, 16 eta 20 urte bitarteko gazteentzat ekainaren 28tik 30era Trikiti Topaketa antolatu dute. Ruben Isa-sirekin ikastaroa, Maixa Lizarribar, Itsaso Elizagoien eta Izerrekin solasaldia, dinamikak eta askoz gehiagoz gozatzeko aukera izango da. Izena emateko epea ekainaren 15a arte egongo da zabalik. Informazio gehiago: trikitixa@trikitixa.net.



AMATZAKO I. TRIKITIXA JAIALDIA

Iurretako Amatza auzoan, San Martin jaien barruan, uztailaren 3an, arratsaldeko 20:00etan ospatuko da Amatzako I. trikitixa jaialdia. Hauek izango dira parte hartuko duten bikoteak:

- ▶ Ansozregi eta Larrañaga
- ▶ Harkaitz Allur eta Miren Errasti
- ▶ Elizagoien ahizpak
- ▶ Landa eta Antxitte
- ▶ Lierni Aranburu eta Mireia Ibabe
- ▶ Izer eta Lutxurdio

Sarrera doakoa izango da eta jaialdiaren ondoren afaria egongo da.



EMAROCK EGUNA

Emarock emakume musikarien inguruan lan egiten duen proiektu bat da. Emakume musikariak agerian jartzea, emakume musikariak dauden taldeak eta beraien lana ezagutzera ematea, neska gazteengan erreferenteak sortzea, emakume egindako musika esparru publikora zabaltzea, emakume musikariekiko oraindik dauden zenbait pentsamendu apurtzea, e.a., dira euren asmoetako batzuk. Apirilaren 25ean Aretxabaletan ospatu zen EmaRock eguna eta beste hainbat emakume musikarien artean, emakume trikitilariak ere izan zuten beren lekua; Ines Osinaga eta Maixa eta lagunek jaialdian parte hartu zuten.

DORRONSORO ETA HICKS

Eneko Dorronsoro Ataundarra trikitixarekin eta Lucas Hicks Bellinghamdarra (Washington) banjoarekin, martxoan eta apirilean Nafarroan eta Gipuzkoan zuzeneko kontzertuak ematen aritu dira elkarrekin. Formatu txiki eta berezia osatua dute eta hasieratik trikitixa eta banjoa elkarrekin ongi nahasi daitezkeela erakutsi dute. Denetarik jotzen dute, Lucasen hiriko musika (bluegrass-a) eta hemengo musika, trikiti eta banjoarekin moldatuta. Iaz etorri zen Lucas lehenengo aldiz Euskal Herrira Joseba Tapiaren eskutik trikiti doinuak gustatuta piezaren bat ikasteko aitzakian. Aurrera begira, Eneko Bellinghamera joan eta biraren bigarren zatiarekin jarraitzeko asmoa dute.



JUAN MARI BELTRAN: "ERNIOKO MAGALEAN"

"Ernioko Magalean" diska kaleratu du Juan Mari Beltranek, Andoitz Antzizar eta Errege Beldaren laguntzarekin. XX. mendearen lehen erdiko Gipuzkoan dultzainarekin eta akordeoiarekin egiten zen musikari zuzendua dago disko hau, zehazki plazan dantzatzeko egiten zen musikari. Aukeratutako piezak garai hartako gipuzkoar dultzaineroen errepertoriotik hartu dira. Formatu honetan kaleratzen duen bigarren diska du Beltranek, lehenengoa Astiasaranekin egin zuen "Amasatik Arratera". Erritmo eta dantza moten hautaketa bat biltzen du diskak: dantza herrikoiak diren jotak eta fandangoak, porrusaldak, arin-arinak, kalejirak, balsak, txotisak, mazurkak, habanera e.a. Guztira 15 piezez osatutako diska da eta www.soinuenea.org webgunean daukaten dendan eskuratu daiteke. Orain aurkezpen kontzertuekin dabilta; lehena Oiartzunen egin zuten maiatzaren 16an eta hurrengoa Logroñon izango da ekainaren 12an.



ASTIASARAN ANAIK ETA LEIRE: "GOGORATZEN"

Astiasaran anaiak eta Leirek uztaila hasieran kaleratuko dute beraien lehen diska hirukote moduan. "Gogoratzen" izena jarri diote 12 piezez osaturiko diskoari. Letretan moldaketa batzuk egin dituzten arren, batez ere doinu herrikoiak biltzen ditu. Kolaboratzaileak ere izan dituzte: baterijolea, bajujolea eta Iker Zubeldia, Jon Maia eta Patxi Etxeberria letragile. Diska beraien erromerietan edota inguruko tabernetan egongo da eskuragarri laster.

"FASIOREN MENDEA" disko-liburua

Aiko taldeak sarean (www.aikotaldea.eus) jarri ditu Igorreko Bonifazio Arandia 'Fasio'ri buruzko hainbat material idatzi, audio, partitura, ikus-entzunezko eta irudi. Arratiako musikari herriko handienetakoari buruz egindako lanaren emaitza da hau. 'Fasioren Mendea' disko-liburuak sakonean aztertu ditu eskusoinuaren eta euskal musika tradizionalaren arteko harremanak, hainbat hamarkadatan bertako musika-jotzailek ezagunenetakoa izan zenaren bitartez. Lan honetan, Fasiok hil baino bi urte lehenago egindako grabazio argitaratu gabe bat, jendaurreko bi ekitaldiren filmaketak eta hil osteko omenaldiaren irudiak ere bildu dira.

Lan honetaz gain, Aikok 'Dantza Fasiogaz' izeneko dantza ikastaroa antolatu zuen maiatzean EHUko KulturBasque-rekin batera. Ikastaroak musikaren eta dantzaren arteko hartu-emanak aztertu zituen erritmoaren ikuspegitik, eta trikitiaz eta panderoaz alaitutako dantzaldiei buruzko atal berezi bat eskaini zuten, jota, fandangoa, arin-arina eta porrusaldaren protagonismoa aldarrikatuz.

